

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTU DITUEN ORDENANTZA

I. ZEDAPEN OROKORRAK

1.artikulua

Udal honek, Lurralde Toki Ogasunak arautu dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta beraren barruan geratzen dira jasota.

2.artikulua

Ordenantza hau Udalerriaren eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3.artikulua

Udalaren aldetik, zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zerga egitatea, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka eragin delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4.artikulua

1. Honako hauek izango dira, zergadun kontzeptuan, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.
2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzua mantentzea barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratoritzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua

Zerga-oinarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratuko du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua

Tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da zerga kuota, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPEN ETA ZERGALDIA

10. artikulua

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortuko da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua

Ordenantza honetan arautu diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatutako da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, behin-betiko onartuta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen denean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

Epigrafea: Agiri administratiboak emateagatiko tasa.

I. TARIFAK

1. Bosgarren fotokopiatik aurrera:

DIN A4: 0,10€

2. Hirugarren fotokopiatik aurrera:

DIN A3: 0,20€

3. Udal fotokopiagailuan egin ezin diren eta kanpoko kopia-dendetan egin behar diren espediente edota plano osoen fotokopia: Fotokopia horien kostua.

4. Euskarri informatikoen kopiak: CD: 10€